

Txillardegirekin zorra ezin kitatuz

Xabier Kintana

Euskaltzaina

Astebete iragan da jada Jose Luis Alvarez Enparantzak, Txillardegik, utzi gintuenetik. Merezi bezala, asko eta ondo idatzi da zazpi egunotan haren bizitza eta lanaz, eta zaila, oso zaila iruditzen zait jada hartaz esan eta idatzi ez denik papereraztea. Aipatuak, ezagutuak eta goresiak izan dira haren askotariko emaitza eta merezimendu nabarmenak, eta neronek, onean ere, errepikatu besterik ez nituzke egingo jada beste askok segurki neronek baino hobeki adieraziak. Horregatik agian interesgarriagoa dateke hemen gure belaunaldiak harengandik jasoriko ondarea azaltzea, aldi berean, harekiko gure zorra aitortzeko.

Gerraondoko belaunaldia da gurea, 1946 aldean jaiorikoena. Gehienon aitak frontean ibiliak ziren, eta gerra ondoren, frankismoaren peko umilazioaren, kartzelaren eta lan bortxatuen zapore mingotsa dastatu behar izan zuten, eta guk horren ondorioak. Euskal nazioa, inolako egitura politiko propiorik gabe, erabat ukatua zen, gure hizkuntza iraindua eta debekatua, hedabideak eta irakaskuntza osoa atzeritarren zerbitzu hertsian. Euskaltzaindia legetik kanpo genuen, katakunbetan malbizi-

tzen. Gure artean, luzaro, aber-tzaletasunaren zuzi iratxekia gorde zuen alderdi bakarra EAJ zen. Halere, haren eragina ia sinbolikoa zen, noizik behinkako panfletoak eskupetik banatu, hormen gaineko pintada erritualak (*Gora Euzkadi Azkaututa*), eta gehienez ere, kanpandorre edo tentsio altuko kableetan ikurrinen bat jarritz. Gerran galdurikoagatik negarra, gure herri on, zintzo eta guztiz katolikoaren aldeko apologia hutsalak, eta, beti ere, buru-errukia, errurik gabe pairatu behar genuen sufrimenduaren kexa latzak, besterik ez. Itxaron egin behar, beti itxaroten egon, aukera hobeak agertu arte.

Inork ez zigun orduan esaten zulo hartatik irteteko zer egin zitekeen. Jeltzaleek indarkeriari, orduan defentsa hutsekoa bazen ere, gaizki zeritzoten. Euskara ikastea, bestalde, norberak bakarka eta era baketsuan egin zezakeen arren, premiagabekotzat jotzen zen, euzkotar ona izateko aski baitzen deiturak (barkatu, abizenak) euzkera garbi-koak edukitzea. Bestalde, txikitandik eta amaren bularretik egiten ez bazen, ezinezkoa omen zen euskara ikasi eta berreskuratzea.

Baziren, ordea, gerra aurreko boz disidente batzuk. Xabier Lizardik, adibidez, Unamunoren iritziaren aurka, euskarak edo zer esateko balio zuela aldarrikatzen zuen jada. Bestalde, Justo Mokoroak bere *Genio y Len-*

gua-n nazio baten funtsezko oinarria odolean ez baina hizkuntzan zetzala errepikatzen zigun ozenki. Baina aitzindariok ez ziren aipatu ere egiten gerra ostean, ez eta ideia horiek agertzen abertzale haien ideariumean.

Eta orduan, bat-batean, Txillardegik eta bultzaturiko aber-tzaletasun berriaren programa hartan, horra non euskararen garrantzia azpimarratzen hasten zaigun. Noski, euskara nazioaren osagai inportantea zela lehendik ere entzuna genuen, baina aurrekoek hori elementu ideal eta abstraktutzat aipatzen ziguten, eta ez, edozein abertzale kontsekuente eta zintzok, bere eguneroko lanaz eta etsenpluaz berreskuratu behar zuen helburu pertsonal gisa. Euskara, hortaz, abertzaletasuna neurtzeko termometro bihurtzen zen. Ipuineko Antzorriletak bere aitarenaganako maitasuna definitzean zerabilen «hargiak gatzari beste» haren antzera, abertzaleak ere «sorterriari besteko» maitasuna erakutsi behar zion hizkuntzari ere.

Bestalde, aldarrikatzen zen euskaltzaletasun hori praktikan egiaz eta benetan bete zitekeela frogatzeko, predikariak bere burua eta bere eguneroko bizitza erakusten zizkigun: Txillardegik, G. Arestik bezala, euskara nagusitan ondo ikasi eta landu ahal dela argi agertzen zigun. Eta hizkuntza zapaldu, ukatu eta ia desagertua berriz

ere berpiz zitekeela hobeto nabarmentzeko, hots, ezina ekinez eginaren bidetik, utopia batzuk egingarri direla, Israel sortu berriaren eta Finlandiaren kasu imitagarriak jartzen zizkigun Jose Luisek. Lehenagoko abertzaleek independentzia politikoa proposatzen zuten lehen helburutzat, hizkuntzaren berreskurapena geroagoko utzita. Txillardegik, ordea, kezkatuak zioskun Irlandari arretaz begiratzeko, independentzia gorabehera, gero eta ingelesago bihurtzen ari zenari.

Euskararen edozertarako gaitasun hori ez zen, harengan, hitz hutsetan gelditzen. Txillardegik bere luma azkarraz, argi zerakuskigun, baserri eta itsas giroko kontakizunez kanpoan ere, gure mintzaira tresna ezin hobe zela kaleko, munduko eta orotariko istorioak kontatzeko. Baina, horretarako, munduko gainerako kultura-hizkuntzetan bezala, dialekto mintzatuen nahaste-borraste zatikatzaileen gainetik, nazio-hizkuntza batua eta batzailea behar genuen, eta hor ere buru-belarri

Lehenagoko purismo antzuaren orde, hizkuntza estandar normaldu eta erabilgarria bultzatu zuen

jardun zuen lanean, euskara batua lortu arte.

Eta euskara horretan ideia modernoak, existentzialismoa, politika, estrukturalismoa edo eboluzio-gaiak ere jorra zitezkeen. Eta nolako ondorio distiratsuekin gainera! Hura bai euskara aberats, dotore, isurkor eta landua! Tokitan zegoen, Txillardegiren prosaren parean jarrita, Krutwigen euskal idazkera zurrun eta moldagaitza, batasunarako zerabiltzan teoria politik gorabehera! Horregatik Jose Luisek euskaltzaletasun eta abertzaletasun-mezuek hasiera-hasieratik erakarri gintuzten. Lehenagoko purismo antzuaren orde, hizkuntza estandar normaldu eta erabilgarria bultzatu zuen.

Bestalde, eta horrek ere bere garrantzia dauka, eta ez txikia, Txillardegik ez zuen teoriaren eta praxiaren arteko hausturirik egiten, bera baitzen lehenlehena betetzen inorentzat proposatzen zuena. Eta hori, orduko lehendakaria bera bere seme-alabei gure hizkuntza nazionala irakasten arduratzen ez zen garai batean, eredugarria genuen erabat. Bide horretan kartzela, erbestea eta mila eragozpen pairatu behar izan zituen, baina berak beti zintzo jarraiki zitzairen bere abertzaletasun-oinarriei, horiek beti ere edozein alderdiren diziplina baino gorago izan zituen eta. Ezin ahantzizkoa, jakina, bide latz horretan beti aldamenean, bidaide eta gogaide, izan duen emazte adoretua, Jone Forcada, bere ordu latzetako lagun zintzoa.

Jendea bere eginetatik ezagutzen delako esakunea egia baldin bada, erraz uler daiteke zergatik askok geure abertzaletasuna, neurri handiz, Txillardegiri zor diogun. Eta diruzkoak ez diren zorrak, kasu honetan bezala, kitaezinak dira.

Ez adiorik, Jose Luis

Joseba Felix Tobar-Arbulu

Ingeniaria

Andolin koinatuarekin gertatu zitzaidan antzera, oso gogorra egiten zait Jose Luis ezidaztea, bera jadanik ez dagoelako gure artean.

Ezagutu bai, aspalditik ezagutu dut Jose Luis, baita haren hainbat artikulua eta gramatikazko zenbait liburu irakurri ere, baina harreman sendo eta sakona 1986an hasi zen, Montrealetik etorri bezain laster. Le-

hentxeago handik idatzi nion ea zer nolako giroa eta lan egiteko aukerak zeuden UPVn galdetuz. Erantzuna berehala etorri zitzaidan, beti egin duen bezala.

Geroago hamaika bileratan eta ekitalditan egon gara, hitzaspertuak egiteko kontaezinezko aukerak. Dena den, *high politics* ukitzerakoan, biok bakarrik egon gara hala Donostian nola Bilbon zein Itziarren edo kostaldeko hainbat herritan. Saio batzuk ere egin ditugu aldizkari bat plazaratzeko, nolabaiteko eztabaida sakona bertan egiteko eta hedatzeko, beti Euskal Herriaren egoera (linguistiko, sozial, kultural, politiko eta ekono-

mikoa) aztertu eta hobetzeko helburuarekin. Behin eta berriz porrot egin dugu. Baina porrot horiek ez zizkiguten kendu kezka gainetik: elkarri idatzitako eskutitz andana lekuko da.

Azken bolada honetan, zein bere arloari lotuz, gure harremana, lehen bezalaxe, eskutitzetan eta e-postetan landuz eta sakonduz joan da. (Agian, besteren batek noizbait paper hori guztiok bilduko lituzke liburuxka batean. Arlo eta gai desberdinetako informazio pilo bat trukatu diogu elkarri. Baina, horretarako, ezer egitekotan, urteak, urte asko, igaro beharko dira.)

Joseluisen bi kezka nagusiak,

Euskal Herriaren independentzia politikoa eta euskararen erabilera eta hobetzea, ezagunak dira. Beharbada, ez da hain ezaguna zeukan beste kezka bat: Enkarterri eta bertako toponimian azaltzen diren euskararen arrastoak. Bertan egon

‘High politics’ delakoaz mintzatzeko, norengana jo?

zen eta harrituta gelditu, ez soilik paisaiaz, jendeaz ere bai. Andolinekin joan ginen 2000ko maiatzean.

Andolin joan zitzaigun 2004an, eta oraindik faltan botatzen ditut berarekin larunbatero gure etxean izandako eztabaida luze eta mamitsuak, algarak eta denbora-pasa ederrak.

Oraintxe Joseluisek utzi gaitu. Norengandik jaso hemendik aurrera halako eskutitzak eta e-postak? *High politics* delakoaz mintzatzeko, norengana jo? Patxadaz, aurreiritzirik gabe, *hunting eta hartaz* hitz egiteko, nor solaskide?

Ez adiorik, Jose Luis, gero arte baizik. Plazer bat izan duk hirekin egotea, eta ohorea hire adiskide izatea. Besarkada bana etxekeontzat Irati—Soto del Realetik—, Garazi, Edurne eta laurron partez.